

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2024 FORU DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegiturretan udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko xedez Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak 2025ean emango dituen dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen 2024ko ekainaren 13ko 63/2024 Foru Dekretuak eskumena ematen dio sail honi udal azpiegiturretako lanak finantzatzeko dirulaguntzak nola eman arautuko duen foru-dekretuaren eredua proposatzeko.

Bizkaiko Lurralde Historikokoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorretan, behar den kreditua gorde da zerbitzu edo erabilera publikoei lotutako azpiegituren benetako inbertsioetan jarduerak, udal-eskumenekoak Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriekin batera finantzatzeko ematen diren dirulaguntzak ordaintzeko, eta, beraz, ezinbestekoa da haiek arautzeko arautegia ezartzea.

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da). Halaber, dekretu horren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat, txosten hauek egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailak egindako txosten juridikoa.
2. Generoaren gaineko eraginik ezari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoaren txostena.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; bestalde, Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, foru-diputatuen eskumena da, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan, hain zuzen ere, hori xedatzen baitu Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua.

Horrenbestez, Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau:

XEDATZEN DUT:**Artikulu Bakarra. — Dekretu honen xedea**

Erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegiturretan udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Sailak 2025ean dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak onesten dira. Hona deialdi-oinarriaren testua:

**1. oinarria. — Dirulaguntzaren xedea**

1. Arautegi erregulatzailer honetan aipatzen diren dirulaguntzen xedea da erabilera publikoari atxikita geratuko diren edo zerbitzu publiko baterako izango diren ondasunak eraiki edo hobetzeko udal-eskumeneko jarduketak sustatzea, halako azpiegituren maila egokia lortzeko.

2. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak honako inbertsio-programa hauetan sailkatuko dira:

- a) Titulartasun publikoko eraikinak, instalazioak eta ekipamenduak eraiki, birmoldatu eta berritzeko lanak.
- b) Egun ibilgailuentzat zabalik dauden gunek oinezkoentzako gune bihurtzea.
- c) Bide publikoak eta hiriko aparkalekuak egiteko eta horietan zoladura jartzeko lanak.
- d) Erabilera publikoko ondasunak estaltzea eta hornitzea, hala nola aparkalekuak, garraio publikoko geroak edo parkeak.
- e) Uraren, saneamenduaren, argiteria publiko, gasen eta komunikazioen hornikuntzetarako azpiegiturak.
- f) Irisgarritasuna hobetzen duten azpiegiturak.

3. Dirulaguntzak inbertsio iraunkorretarako bakarrik emango dira, baldin eta udalaren etorkizuneko egoera ekonomikoa eta finantzak arriskuan jartzen ez badituzte. Horretarako, dirulaguntza jasotzen duen azpiegiturak hurrengo hiru urteetan sor ditzakeen gastuak (halakorik sortuz gero) finantzatzeko diru-iturrien justifikazioa aurkeztu beharko du erakundeak.

4. Administrazioak inbertsioak bere bitartekoekin egiten dituenean, pertsonal-gastuak ez dira diruz laguntzekoak izango.

5. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioetat jotzen dira kasuan kasuko erabilera edo zerbitzu publikoari atxikitako altzariak.

2. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak

1. Foru-dekretu honetan xedatutako dirulaguntzen onuradun izan daitezke 2024ko urtarrilaren 1ean udal erroldan dauden datuen arabera 7.500 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, baldin eta ez badaude Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. atalean jasotzen diren egoeratakoen batean.

2. Sexu-bazterkeriagatik administrazio zigorren bat edo zigor penalen bat jaso duten edo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legea dela-eta debeku horrekin zigortu edo zehatutako erakundeek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, zehapen horrek ezarritako epean zehar.

3. oinarria. — Araubide juridikoa

Hau izango da dirulaguntza hauen araubide juridikoa:

- a) Foru-dekretu honetan araututako oinarriak eta deialdia.
- b) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.
- c) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita dirulaguntzen erregelamendua, Dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzen duena.
- d) Administrazio zuzenbideko gainerako arauak eta, haiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenetarako, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua-



ren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da bai eta arau hori garatzen duen erregelamendua-
ren IV. tituluan xedatutakoa ere. Nolanahi ere, dagozkien berandutze-interesak eskatuko
zaizkie beti.

5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko era eta epea

1. Eskabidea aurkezteko, udal interesdunek egoitza elektronikora jo behar dute.
Esteka www.bizkaia.eus/udalnet web orriko Tramiteak atalean aurki dezake, 2025eko
otsailaren 17an amaitzen den epean.

Eskabidearekin batera, hurrengo atalean eskatzen diren agiriak elektronikoki sinatu-
ta, hala badagokio, erantsiko dira.

6. oinarria. — Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu behar diren agiriak

1. Eskabidea foru-dekretu honen I. eranskinean ageri den eredu normalizatuan
egingo da eta harekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diruz laguntzea eskatzen den inbertsioaren aurrekontu zehaztua, kengarria ez
den jasandako BEZaren zenbatekoa barne, eta, hala badagokio, baloratutako
proiektu tekniko bat, ahal dela euskarri informatikoan, legez nahikoa eskumen
duen teknikari batek idatzia.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen
duten agiriak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak
egiaztatze horiek zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena bera-
riaz ukatu bada. Eskatzaileak, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena
emango dio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari zer-
ga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen
duten agiriak zuzenean lortzeko. Hala ere, eskatzaileak berariaz adieraz dezake
ukatu egiten diola baimen hori.
- c) Idazkariak emandako ziurtagiria, II. eranskineko ereduaren arabera:
 - 1) Helburu bererako eskatzaileak estatuko zein nazioarteko edozein adminis-
trazio edo erakunde publiko zein pribatutik eskuratu dituen edo horiei eskatu
dizkien dirulaguntza edo laguntzei buruzkoa.
 - 2) Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra
arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12.2. artikuluan aipatzen diren ingurua-
barrak ez direla gertatzen adierazten duena; izan ere, egoera horiek eragotzi
egiten dute onuradun izateko aukera.
 - 3) Eskumeneko inbertsioak erabilera publikoarekin zerikusia duela edo zerbitzu
publiko baterako dela adierazten duena.
 - 4) Izandako zehapenak adierazten dituen.
 - 5) Ondasunaren titulartasun publikoa adierazten duena, dirulaguntza titulta-
sun publikoko eraikinak eraiki, birmoldatu eta berritzeko eskatzen denean.
- d) Kontu-hartzailearen edo idazkari kontu-hartzailearen txostena gastua xedatu
den edo xedatuko den aurrekontu-kredituari buruzkoa, III. eranskineko eredu-
aren arabera.
- e) Inbertsioaren iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena (IV. eranskina).
- f) Memoria: egin beharreko inbertsioaren deskribapen laburra.

2. Eskabidearekin batera eskatzen diren agiriak aurkeztu ez edo oso-osorik aur-
keztu ez badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015
Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunei errekerimendua egingo
zaie hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituzten nahitaezko agi-
riak eramateko, eta adieraziko zaie ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat
joko direla, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

3. Edonola ere, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak aur-
keztutako eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen di-
tuen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

**7. oinarria.— Dirulaguntza emateko prozedura**

Dirulaguntzak emateko prozeduran, norgehiagokaren araubiderako arauetan zehazten diren izapideak beteko dira.

8. oinarria.— Eskabideak baloratzeko irizpideak

1. Eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Per capita inbertsioa; formula honen arabera:

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua.

2024ko urtarrilaren 1eko biztanleria.

Irizpide honen balorazioa:

- 1) 100 eurotik gorakoa, 40 puntu.
- 2) 10 euro eta 100 euro artekoa, 20 puntu.
- 3) Gainerakoetan, 0 puntu.

Inbertsio erlatiboa; formula honen arabera:

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua

Eskubide onartu korronteak, onartutako azken likidazioaren arabera

Irizpide honen balorazioa:

- 1) %20tik gorakoa, 40 puntu.
- 2) %5 eta %20 artekoa, 20 puntu.
- 3) Gainerakoetan, 0 puntu.

2. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira erakunde onuradunaren izaera lortu ahal izateko.

9. oinarria.— Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua

1. Deialdi honetan, 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrietarako, gehienez ere 60.000 euroko aurrekontua soilik hartuko da kontuan onuradun bakoitzeko, edozein delarik ere diruz laguntzea eskatzen den aurrekontuaren zenbatekoa. Gainerako udalerrientzat, berriz, gehienez ere 100.000 euro, onuradun bakoitzeko, izango da diruz lagundu daitekeen aurrekontua.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa fase bitan zehaztuko da: hasierako fasean, aurrekontu onartu doituen arabera zehaztuko da, 3. zenbakian arautzen denarekin bat; behin betiko fasean, berriz, adjudikazio onartu doituen arabera zehaztuko da, 4. zenbakian arautzen denarekin bat.

3. Dirulaguntzaren hasierako zenbatekoa zehazteko orduan prozedura hau beteko da:

- a) Diruz lagundu daitezkeen jarduketan aurrekontua 1. zenbakian ezarritakoa baino handiagoa bada, aurrekontua gehieneko zenbateko horietara doituko da.

- b) Aurrekontu-kreditua, 3.000.000 euro, hasiera batean honela banatuko da:

- 1) 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrientzat 2.000.000 euro izango da. Zenbateko hori 8. oinarriaren 2. zenbakian ezarritako gutxieneko balorazioa lortu duten diruz lagundu daitezkeen inbertsioen aurrekontu onartu guztien baturaren artean zatituko da; aurrekontuok, beharrezkoa bada, doituta egongo dira. Horrela, aurrekontu onartu eta doituari aplikatu beharreko hasierako diruz lagundutako ehunekoa lortzen da. Ehunekoa hori ezin da %100 baino handiagoa izan.
- 2) Gainerako udalerrientzat 1.000.000 euro izango da. Zenbateko hori 8. oinarriaren 2. zenbakian ezarritako gutxieneko balorazioa lortu duten diruz lagundu daitezkeen jarduketan aurrekontu onartu guztien baturaren artean zatituko da; aurrekontuok, beharrezkoa bada, doituta egongo dira. Horrela, aurrekontu onartu eta doituari aplikatu beharreko hasierako diruz lagundutako ehunekoa lortzen da. Ehunekoa hori ezin da %100 baino handiagoa izan.



c) Behin b) letrako banaketa eginik:

- 1) 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrietan, baldin eta lehen banaketa batean onarturiko aurrekontuaren %100era heltzen bada eta b.2. zenbakiko portzentajea ez bada %100era heltzen, sobera geratzen den beharrezko kreditua b.2. zenbakiko portzentajea gehitzera bideratuko da, baina gehienez ere %100era ailegatu arte.
- 2) Gainerako udalerrietan, baldin eta lehen banaketa batean onarturiko aurrekontuaren %100era heltzen bada eta b.1. ataleko portzentajea ez bada %100era heltzen, sobera geratzen den beharrezko kreditua b.1. ataleko portzentajea gehitzera bideratuko da, baina gehienez ere %100era ailegatu arte.

4. Behin betiko zenbatekoa zehazteko, 16. oinarrian arautzen denarekin bat, 3. zenbakian deskribatzen den prozedura jarraituko da, baina, kasu honetan, erabilitako zenbatekoak, onartu eta doituak, kontuan hartuta.

Horrela, zenbateko doituak onartu eta doituari aplikatu beharreko behin betiko diruz lagundutako ehunekoa lortzen da. Ehuneko hori ezin da %100 baino handiagoa izan.

5. Aurreko 4. atalean araututakoa ezarri ondoren, eta udalen batean gehiegizko finantzaketarik gertatuz gero, tarterako onetsitako zenbatekoa banatu izan ez bada, soberrakina gainerako udalen artean banatuko da, aurreko ataletan zehaztutako metodologia erabiliz.

10. oinarria. — *Prozeduraren instrukzioa*

1. Kide anitzeko organo batek egingo du instrukzioa, eta ebazpen-proposamena helarazi beharko dio laguntza ematen duen organoari. Hauek osatzen dute kide anitzeko organo hori: Udal Harremanen zuzendari nagusia, Udal Azterlanetarako eta Toki Erakundeentzako Ekonomia Laguntzarako Zerbitzuko burua, Ekonomia Laguntzarako Ataleko burua eta zerbitzuko teknikari bat.

2. Organo emailea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua izango da, eta foru-agindu bidez egingo du.

11. oinarria. — *Ebazpenaren edukia, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko bidea eta organo eskudunari aurkez dakizkiokeen errekurtsuak*

1. Ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta interesdunei gehienez ere bi hilabeteko epearen barruan jakinaraziko zaizkie, eskatutako agiriak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Hala ere, epe hori luzatu egin ahal izango da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 23. artikuluan zehazten den kasuan.

2. Aurreko zenbakian aipatutako gehieneko epea igaro ondoren, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskatzaileek beren eskabideak ezetsi egin direla pentsatu ahaliko dute, administrazio-isiltasuna dela eta.

3. Ebazpena jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrerako hamar eguneko epea izango du udal onuradunak dirulaguntza onartzeko. Epe hori igarota, kontrakoa ezer adierazten ez badu, onartutzat joko da.

4. Udal Harremanen Zuzendaritza Nagusiak jakinaraziko die ebazpena udal interesdunei, posta ziurtatuaren bidez edo bide elektronikoa erabiliz.

5. Ebazpenaren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Administrazioarekiko Auzietarako Epategian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita. Nahi izanez gero, eta goiko errekurtsu hori jarri baino lehen, errekerimendua aurkeztu ahal izango da, ebazpena eman duen organoari zuzenduta, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita.

12. oinarria. — *Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea ekar dezaketen inguruabarrak*

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak onar dezake aldatetako egitea diruz lagundutako aurrekontuan, baldin eta justifikaturik badago, arrazoi



berriak eta ustekabekoak agertu direlako, zeinak nahitaezkoak izan behar dira dirulaguntzaren helburua lortzeko. Horretarako, udal onuradunak aldaketak onartzeko eskabidea aurkeztuko du eta 17. oinarrian aipatutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

2. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, foru-agindu bidez, eskatutako aldaketen gaineko ebazpena emango du, eta onartzen den aurrekontu aldatua izango da, ondore guztietarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontutzat hartuko dena.

3. Ez dira kontuan hartuko atal berriak sartzea eragiten duten aldaketak, guztira dirulaguntza jaso duen hasierako aurrekontuaren %20tik gorako zenbatekoak badira. Ez dira kontuan hartuko ere dauden atalak gehitzea eragiten duten aldaketak, atal bakoitzeko hasierako zenbatekoaren %50etik gorakoak badira. Dauden ataletan murrizketak egiten direnean, 20. oinarrian ezarritakoa beteko da.

4. Aldaketa horiek onartzeak ez du ekarriko diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren zenbatekoa handitzea.

13. oinarria. — Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzen publizitatea

Emandako behin betiko dirulaguntzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, honako hauek adierazita: deialdia, zein aurrekontuko programa eta kredituri egotziko zaizkion, onuraduna, eta diruz lagundutako proiektua.

14. oinarria. — Udal onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak jasotako dirulaguntzaren publizitatea egin beharko du, 16. oinarrian aipatzen denarekin bat eta honako hauek betez:

1. Dirulaguntzaren xede den jarduketa 20.000 euroan edo gehiagotan adjudikatzen denean, jarduketa gauzatzen den bitartean behar bezalako publizitatea egin beharko da onuradunaren web-orri ofizialaren bidez, edo, bestela, zabalkunde masiboa bermatzen duen beste edozein bitarteko erabilita. Publizitate horretan emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta horren jatorria agertu beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira eta hizkuntza sexista ez erabiltzea zainduko da (VII.a. eranskina).

2. Gainerako kasuetan dirulaguntza jaso duen inbertsioaren publizitatea erakunde onuradunak berak egiten duenean eta publizitatea agertzen den bitarteko berean baino ez da agerrarazi beharko inguruabar hori.

15. oinarria. — Gastua xedatzeko epea

1. Diruz lagundutako gastuak 2025eko aurrekontu-ekitaldiko ordainketa-kredituen kargura xedatu beharko dira, 2025eko urriaren 6an amaituko den epe luzaezinaren barruan. Epe hori ezin izango da luzatu.

2. Urte askotarako gastu-proiektua denean, 2025eko ekitaldia baino lehenagoko ekitaldietan adjudikatutakoa, 2025eko ekitaldiko ordainketa-kredituen kargura burutuko den inbertsioaren zatiak baino ezin izango du jaso dirulaguntza.

3. Gastua deialdiko ekitaldian xedatzeko baldintza ez da betetzat joko baldin eta kredituak aurreko ekitaldi batean konprometitutako soberakinen gehikuntzari badagozkio.

16. oinarria. — Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa

1. 2025eko urriaren 16tik aurrera, udal onuradun bakoitzak zer zenbateko erabili dituen ikusi ondoren, berriro ere banatuko da kreditu erabilgarria, 9. oinarrian deskribatutako prozeduraren arabera banatu ere, baina kasu honetan kontuan hartuko da onuradunei aurretik zer zenbateko doitu onartu zitzaizen eta zenbat erabili duten.

2. Prozeduraren instrukzio-organoak, 17. oinarrian adierazitako agiriak aztertu ondoren, txostena egingo du hauei buruz:

Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoak zehazteko proposamena, 9. oinarrian dirulaguntza banatzeko ezarritako irizpideak aplikatuz.

Ordainketa osorako edo ordainketa osagarriarako proposamena.



Aurrekoaren ondorioz aldatu egingo da, beharrezkoa izanez gero, dirulaguntza emateko hasierako ebazpena.

3. Oinarri honetako aurreko bi zenbakien arabera, dirulaguntza zenbateko jakin gisa ematen da, diruz lagundutako inbertsioaren portzentaje edo zati bat kontuan hartu gabe.

17. oinarria. — *Ordainketa*

1. Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak honako hauek bidali beharko ditu Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailera 2025eko urriaren 16an bukatuko den epe luzaezinaren barruan:

- a) Esleipen-erabakia.
- b) Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa ordaintzeko eskabidea (V. eranskina). Horretarako dagoen laukitxoa markatu behar da.
- c) Inbertsioa erabilera edo zerbitzu publiko bati atxikitzeko konpromisoa (V eranskina).
- d) Gastu-xedapenaren kontabilitateko dokumentua, kontu-hartzailearen txostena-rekin batera, non jaso behar den kredituak ez direla aurreko ekitaldietan xedatutako gastuen soberakinen gehikuntzen ondorio (VI. eranskina).
- e) Eskatzaileak beste dirulaguntza eta laguntzarik lortu badu helburu bererako, laguntza horiei buruzko adierazpena, zeinahi administrazio, erakunde publiko zein pribatutik datozela ere, estatukoa dela zein nazioartekoa (VII.b eranskina).
- f) Zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak onuradunak berak aurkeztu behar ditu, baldin eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari berariaz ukatu bazaio agiriok zuzenean lortzeko baimena.
- g) Esleitutako aurrekontua, kapitulutan banakatua edo idazkaritzako idatzia, esleipenaren bajaren ehunekoa adierazita, eta hori lineala dela aurkeztutako hasierako aurrekontuaren kapitulu guztientzat.
- h) Bidezkoa denean, 12. oinarriaren arabera, hasierako aurrekontuarekiko onartu diren aldaketak onartzeko eskaera, bai eta aldaketa horiek justifikatzeko dokumentazioa ere, exekuzio-proiektua barne, baldin eta aldaketarik badago eskabidearekin batera bidalitako hasierako proiektuarekin alderatuta.
- i) Kontratazioaz ezartzen dena bete dela egiaztatzeko dokumentazioa (IX. eranskina).

2. Aurrekoa gorabehera, aukera dago 9. oinarriko 3. zenbakiaren arabera zehaztutako hasierako zenbatekoaren ordainketa eskatzeko; udal onuradunak, horretarako, aurreko zenbakian adierazten diren agiriak bidali beharko dizkio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari. Horretarako epea 2025eko uztailaren 22an amaituko da. (horretarako, dagokion laukitxoa markatu beharko du V. eranskinean).

Udalak hasierako zenbatekoaren ordainketa eskatu badu eta hasieran emandako zenbatekoa handitu egiten bada 16.2 oinarriaren arabera ebatzitako aldaketa baten ondorioz, ulertuko da udalak dagokion ordainketa osagarria ere eskatu duela.

18. oinarria. — *Gauzatzeko epea, ordainketa eta dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea*

1. Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epea 2026ko maiatzaren 31n amaituko da. Horretarako, bakarrik hartuko dira kontuan 2026ko uztailaren 31ra arte ordaindutako fakturak. Erabilera edo zerbitzu publikorako atxikipen-aldia 5 urte izango da, zerbitzu publikoa ematen hasten denetik edo ondasuna erabilera orokorrerako ematen denetik zenbatzen hasita.

2. Dirulaguntzaren xede den inbertsioa egiten denean, udalerrriak, ahal dela, oztopo arkitektonikoak eta komunikabidezkoak ezabatzeke ahalegina egingo du, hala dagokionean.

3. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, salbuespenezko egoeretan eta aurkeztu beharreko justifikazioa onartu ondoren, 1. atalean jarduketak



burutzeko zehazten den epea luzatu ahal izango du saileko foru diputatuaren foru agindu bidez. Luzapenaren iraupena diruz lagundutako inbertsio zehatzean gertatzen diren inguruabarren arabera finkatuko da; edonola ere, jarduketa burutzeko epea 2026ko irailaren 30ean amaituko da.

Era berean, salbuespenezko kasuetan, eta bidezko justifikazioa onartu ondoren, foru diputatuaren foru agindu bidez luzapena eman ahal izango zaio 1. atalean adierazten den ordaintzeko epeari dagokionez. Luzapen horren iraupena diruz lagundutako inbertsioaren inguruabarren arabera ezarriko da, eta, nolanahi ere, abenduaren 31n amaituko da.

4. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, udal onuradunak eskatu ondoren eta foru-diputatuaren foru-agindu bidez, dirulaguntza jaso duen adjudikatutako aurrekontuaren aldaketak onartu ahal izango ditu, baldin eta aldaketok arrazoi berri eta ustekabekoek sortuak badira eta dirulaguntzaren helburua lortzeko beharrezkoak badira.

5. Ez dira kontuan hartuko guztira diruz lagundu daitekeen aurrekontu adjudikatuaren %20tik gorako zenbatekoko atal berriak sartzea dakarten aldaketak, ezta atal bakoi-tzean hartan dauden atalak diruz lagundu daitekeen aurrekontu adjudikatuaren %50etik gorako zenbatekoko atalak gehitzea dakartenak ere. Lehendik zeuden ataletan murrizketak egiten direnean, 20. oinarrian ezarritakoa beteko da.

6. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere gehituko.

7. Udal onuradunek VIII. eranskineko ereduaren arabeko justifikazio-kontua bidali beharko diote Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari, 2026ko uztailaren 31n amaituko den epean; kontu horri honako hauek erantsiko dizkiote:

- a) Azken ziurtagiriaren kopia.
- b) Gastuak justifikatzen dituzten fakturen kopia eta haiek ordaindu izanaren justifikazioa.
- c) Helburu bererako eskatzaileak eskuratu dituen dirulaguntza edo laguntzen adierazpena (halakorik eskuratu badu), laguntza horiek estatuko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturenak izan (VII.b eranskina).
- d) Ondasuna edo ondasunak erabilera publiko bati lotu izana edo zerbitzu publiko baterako erabili izana egiaztatzen duen ziurtagiria (VII. c eranskina).
- e) Publizitate egokia egin dela egiaztatzen duten agiriak (VII.a eranskina).
- f) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko inbertsio-memorian egindako jarduerak eta lortutako emaitzak aipatuz.

Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudia-
ren arabera behar bezala justifikatu direnak, beti ere epearen barruan burutu eta ordain-
du badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen
normalari erantzuten badiote.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, salbuespenezko
egoeretan eta aurkeztu beharreko justifikazioa onartu ondoren atalean zehazten den
epea luzatu ahal izango du, saileko foru diputatuaren foru agindu bidez. Luzapenaren
iraupena diruz lagundutako inbertsio zehatzean gertatzen diren inguruabarren arabera
finkatuko da eta, edonola ere, jarduketa burutzeko epea 2026ko abenduaren 31n amai-
tuko da.

8. 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritako ondo-
rioetarako, gastuak egindako gastutzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da justifika-
tzeko epea amaitu aurretik benetan ordainduta egotea.

9. Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntzaren behin betiko likidazioa egingo du, diruz
lagundutako inbertsioaren azken kostuaren arabera.

10. Dirulaguntza zenbateko jakin gisa ematen da; beraz, udalerrri onuradunaren
ardura izango da diruz lagundutako aurrekontua guztiz gauzatzeko beharrezkoa den



gainerako finantzaketa lortzea. Zenbateko hori bakarrik gutxituko da aurrekontua osorik edo zati batean betetzen ez bada, 20. oinarriarekin bat.

11. Diruz lagundutako inbertsioaren helburua ez bada lortzen, galdu egingo da dirulaguntza.

19. oinarria. — *Xede bererako jasotako gainerako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide guztiak, Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakunde bateko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk emandakoak, dirulaguntza hauekin bateragarriak diren ala ez*

1. Foru Administrazioak emandako dirulaguntzekin batera beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso daitezke xede bererako, baldin eta Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoak badira. Baina kontuan hartu beharko da beste dirulaguntza horiek arautzen dituen araudiak horren inguruan ezartzen duena.

2. Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, inola ere ezingo da handiagoa izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino.

3. Eskatzaileak, lehenago, xede bererako bateraezina den beste dirulaguntza bat jaso badu, egoera hori agerraraziko du eskabide-orrian. Kasu horretan, emakidaren ebazpenak ondorioak izan ditzan, udal onuradunak uko egin beharko die lehenago lortutako dirulaguntzei eta jasotako funts publikoak itzuli beharko ditu, halakorik jaso badu.

20. oinarria. — *Ez-betetzeak eta itzulketak*

1. Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.2.k) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, irizpide hauek ezarri dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzea mailakatzeko:

- a) Dirulaguntzaren xede izan zen jarduketa edo jarduketak deialdian ezarritako epean gauzatzen ez badira, emandako dirulaguntza osoa galduko da.
- b) Deialdian ezarritako epean dirulaguntzaren xede izan zen jarduketa edo jarduketak partzialki gauzatzeak, gauzatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza galtzea ekarriko du, baldin eta partzialki gauzatzeak ez badu eragozten diruz lagundutako jarduketaren edo jarduketaren xedea lortzea.
- c) Epeak ez badira betetzen, jasotako diru-kopuruak eta haiei dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Aurrekoa gorabehera, jarduketa edo jarduleta ez badira epe orokorraren edo luzapenaren barruan amaitu, epe barruan egin ez den zatiari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa soilik itzuli beharko da, betiere gauzatze partzial horrek ez badu eragozten diruz lagunduriko xedea lortzea.

- d) Foru dekretu honen 18. oinarrian ezarritako eran ez justifikatzeak edo justifikazioa behar adinakoa ez izateak epean justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia galtzea ekarriko du.
- e) Egindako gastu guztiak edo zati bat ez ordaintzeak, balizko hartzekodunek haiek eska baditzaizkete ere, ekarriko luke galtzea diruz lagungarriak diren gastu egotzi guztietatik ordaindu ez diren gastuei dagokien dirulaguntzaren zati proportzionala.

2. Udal onuradunak dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli ahal izango du, ordainketa-gutun baten bidez, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (foru-dekretu horren bidez Dirulaguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena).

**21. oinarria. — Erakunde onuradunen beste betebeharrak**

Udal onuradunak honako hauek bete beharko ditu:

- Jasotako funtsen erabilerari buruzko frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontroleko jarduketan xede izan daitezke eta.
- Laguntza eskaintzea finantza-kontroleko eginkizunak eman zaizkien organoei.
- Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoa betearazteko, hizkuntza sexistarik erabiltzen ez dela zaintzea.

22. oinarria. — Dirulaguntzari dagozkion aurrekontuko kredituak eta deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbateko zenbatetsia

1. Dirulaguntzak hurrengo aurrekontuko atalean izendatutako kredituaren kontura emango dira: 2025eko ekitaldia; organikoa: 0709; egitaraua: 922114; ekonomikoa: 73299; proiektua: 2007/0131.

2. Dirulaguntzen gehieneko zenbateko zenbatetsia 3.000.000 euro da baina, horretarako, nahikoa kreditu egon beharko da eskura kontzesioa onartzen duen ebazpena ematen denean. Baldintza bera izango dute gastu-espeditentean ematen diren izapide-egintza guztiek: kontzesioaren ebazpena ematean, lehengo berean irautea egintzok gertatu zireneko unean zeuden egitate- eta zuzenbide-inguruabarrek.

AZKEN XEDAPENAK**Lehenengo Azken Xedapena. — Ahalmenak**

Lehenengoa. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru-dekretu hau garatu, interpretatu eta betearazteko.

Bigarren Azken Xedapena. — Indarrean jartzea

Dekretu 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2024ko azaroaren 21ean.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
AGER IZAGIRRE LOROÑO

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

**I. ERANSKINA****ESKABIDEA**

Nik, jaunak/andreak,
.....(e)ko alkate udalburuak, (Udalaren IFK:)
hauxe

AZALTZEN DUT: ikusita erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegituretan udal-eskumene-ko inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutakoa, bertan eskatzen diren baldintzak betetzen ditut, eskatutako agiriak erantsi ditut eta, ondorioz, honako hau

ESKATZEN DUT dirulaguntza ematea erabilera edo zerbitzu publiko bati atxikita geratuko diren ondasunak eraikitzeko eta/edo hobetzeko udal-eskumeneko inbertsioa finantzatzeko, honako xehetasun hauekin bat:

1. Izena
2. Dirulaguntza jaso dezakeen proiektuaren zenbatekoa guztira
3. Udalaren eskumeneko inbertsio-programa (lauki bakarra markatu):
 - ☐ Titulartasun publikoko eraikinak eraiki, birmoldatu eta berritzeko lanak.
 - ☐ Egun ibilgailuentzat zabalik dauden gunek oinezkoentzako gunek bihurtzea.
 - ☐ Bide publikoak eta hiriko aparkalekuak egiteko eta horietan zoladura jartzeko lanak.
 - ☐ Erabilera publikoko ondasunak estaltzea eta hornitzea, hala nola aparkalekuak, garraio publikoaren geralekuak edo parkeak.
 - ☐ Uraren, saneamenduaren, argiteria publikoaren, gasen eta komunikazioen hornikuntzeta-rako azpiegiturak.
 - ☐ Irisgarritasuna hobetzen duten azpiegiturak.
4. Inbertsioaren deskripzioa:
 - 4.1. Adierazi proiektua aurkeztutako beste proiektu baten jarraipena den, eta, hala bada, fasea zehaztu.....
 - 4.2. Kontratu-mota eta esleitzeko prozedura.....
 - 4.3. Zererabilera publiko edo zerbitzu publikoari atxikirik geldituko diren.....
- ☐ **BERARIAZ UKATZEN ZAIO** baimena Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari, egiaztapenak zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lor ditzan.

KONPROMISOA HARTZEN DUT diruz laguntzeko eskatzen den udal-eskumeneko inbertsioa erabilera edo zerbitzu publiko bati atxikitako geldituko dela gutxienez 5 urtez, zerbitzu publikoa ematen hasten denetik edo ondasuna erabilera orokorrerako ematen denetik zenbatzen hasita.

HONAKO HAU ERANSTENDA (bidali diren agiriak markatu)

- ☐ Diruz laguntzeko eskatzen den inbertsioaren aurrekontu zehatza sinaturik, beren-beregi aipatuz BEZa eta ea kengarria den ala ez, eta, hala badagokio, proiektu tekniko bat, esku-mena duen teknikari batek baloratu, idatzi eta sinatua.
- ☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak, berariaz ukatu bada Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak egiaztagiri horiek zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena.



- ☐ Idazkariaren ziurtagiria, II. eranskineko ereduaren arabera, xede bererako lortu edo eskatu diren beste dirulaguntza edo laguntzei buruzkoa, onuradun izatea eragozten duten 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan jasotako inguruabarrei buruzkoa, azpiegituraren atxikipenari buruzkoa eta zehapenei buruzkoa
- ☐ Kontu-hartzailearen edo idazkari kontu-hartzailearen txostena, III. eranskineko ereduaren arabera, gastuaren xedapenari buruzkoa.
- ☐ Inbertsioaren iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena (IV. eranskina).

.....(e)n, 2025ekoaren.....(e)(a)n

Alkate udalburua

Sinadura elektronikoa

OHARRA: Dirulaguntzaren jarraipena egiteko harremanetarako pertsona:

Izen-abizenak:

Telefonia:

Posta elektronikoa:



II. ERANSKINA

IDAZKARITZAREN ZIURTAGIRIA

Nik, jaunak/andreak,
.....(e)ko Udaleko idazkariak, hauxe

ZIURTATZEN DUT:

.....izeneko inbertsiorako,
.....(e)ko Udalak

☐ Dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide hauek jaso ditu:

Organo emailea Órgano concedente	Emandako kopurua Importe concedido	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna Compatibilidad o incompatibilidad
1.		
2.		
3.		

- ☐ Inbertsio honetarako ez du beste dirulaguntzarik, laguntzarik, sarrerarik edo baliabiderik eskatu estatuko edo nazioarteko inolako erakunde publiko edo pribatutan.
- ☐ Eraiki, birmoldatu edo berritu beharreko eraikina titulartasun publikokoa da.
- ☐ Hezkuntza-zerbitzuetarako eraikina titulartasun publikokoa da eta eskatzen den dirulaguntza hezkuntza-administrazio eskudunak hezkuntzaz bestelako erabilera bat egiteko lagatako eraikin batean edo eraikin zati batean egingo da.

ERA BEREAN, HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:

Ez dira gertatzen Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan aipatzen diren eta onuradun izateko aukera eragozten duten inguruabarrak.

Udal-eskumeneko inbertsio hori udal-eskumeneko erabilera publiko bati atxikita dagoela edo zerbitzu publiko baterako dela.

Udalak ez duela jaso, sexua dela-eta inor baztertzearagatik, dirulaguntzak jasotzeko debekurik daren administrazio-zehapenik edo zehapen penalik, eta ez diote debeku hori ezarri Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legean ezarritakoa dela bide.

Bidezko ondorioak izan ditzan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutako udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdian, ziurtagiri hau egin dut,

.....(e)n, 2025ekoaren ...(e)(a)n.

Sinadura elektronikoa



III. ERANSKINA

KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA

Nik, jaunak/andreak,
.....(e)ko Udaleko kontu-hartzaileak / idazkari kontu-hartzaileak, hauxe

ADIERAZTEN DUT:

.....izeneko inbertsioak
(honako aukera hauen artean adierazten den/diren aukera/k markatu)

- ☐ Gastua 2025eko aurrekontuko ordainketa kredituen kargura xedatuko da, eta horien kargura baino ez.
- ☐ Urte askotarako gastua denez, 2025eko ekitaldiaren aurrekoetan euroko gastua xedatu da. Honako hauek dira konprometitutako kredituen xehetasunak:
- euro 2025aren aurreko aurrekontuen kargura.
 - euro 2025eko aurrekontuaren kargura (hau da, hasiera batean dirulaguntza jaso dezakeena)
 - euro 2025eko ekitalditik aurrerako aurrekontuen kargura.
- ☐ Urte askotako gastua denez, 2025eko aurrekontuan euroko gastua xedatuko da. Honako hauek dira kredituen xehetasunak:
- euro 2025eko aurrekontuaren kargura (hau da, hasiera batean, dirulaguntza jaso dezakeena)
 - 2025eko o ekitaldiaren aurrerako aurrekontuen kargura.

Bidezko ondorioak izan ditzan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutako udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdian, ziurtagiri hau egin dut,

.....(e)n, 2025ekoaren ...(e)(a)n.

Sinadura elektronikoa



IV. ERANSKINA

INBERTSIOAREN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA

Nik,..... jaunak/an-
dreak,.....(e)ko Udaleko kontu-hartzaileak/idazkari kontu-hartzai-
leak, hauxe,

ADIERAZTEN DUT:

..... izeneko inbertsioak

(honako aukera hauen artean adierazten den/diren aukera/k markatu)

- ☐ Egin beharreko inbertsioak ez du beste gasturik eragingo datozen 3 urteetan.
- ☐ Inbertsioak beste gastu batzuk sortuko ditu, eta ondoren adierazten da zein izango den haien proiektzioa datozen 3 urteetan eta zein haien finantzaketa-iturria:

Urtea / Año	Gastu berriaren zenbatekoa Importe nuevo gasto generado	Finantzaketa-iturria Fuente de financiación
2026		
2027		
2028		

Bidezko ondorioak izan ditzan Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutako udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdian, ziurtagiri hau egin dut,

.....(e)n, 2025ekoaren ...(e)(a)n.

Sinadura elektronikoa

Ontzat emana:

Alkate udalburua



V. ERANSKINA

ORDAINKETA ESKATZEKO ETA ALDAKETAK ONARTZEKO ESKABIDEA, HALAKORIK BADAGO

Nik..... jaunak/andreak,
(e)ko alkate udalburuak, (Udalaren IFK:) hauxe

AZALTZEN DUT: ikusita 2025eko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia, bertan eskatzen diren baldintzak betetzen ditut, eskatutako agiriak erantsi ditut eta, ondorioz, honako hau

ESKATZEN DUT: aldaketak onartzea eta ordaintzea ondoren adierazten den inbertsiorako emandako dirulaguntza:

Aurreko aldaketak justifikatzen dira diruz lagundutako helburua lortzeko beharrezkoak diren honako arrazoi berri eta ezusteko hauek daudelako:

Zehaztu ordaintzeko era)

- ☐ Behin betiko zenbatekoaren ordainketa
- ☐ Hasierako zenbatekoaren edo osagarriaren ordainketa
eta inbertsiorako hasieran onartutako aurrekontuaren gaineko aldaketen onarpena, aldaketarik egon bada.

HONAKO HAU ERANSTEN DA (Bidali diren agiriak markatu)

- ☐ Esleipen-erabakia
- ☐ Gastu-xedapenaren kontabilitateko dokumentua, kontu-hartzailearen txostenarekin batera, non jaso behar den kredituak ez direla aurreko ekitaldietan xedatutako gastuen soberakinen gehikuntzen ondorio (VI. eranskina).
- ☐ Helburu bererako eskatzaileak eskuratu dituen dirulaguntza edo laguntzen adierazpena (halakorik eskuratu badu), laguntza horiek estatuko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturenak izan (VII.b eranskina).
- ☐ Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena berariaz ukatu bada, onuradunak egiaztatutako horiek aurkeztu beharko ditu.
- ☐ Esleitutako aurrekontua, kapitulutan banakatua edo idazkaritzako idatzia, esleipenaren bajaran ehunekoa adierazita, eta hori lineala dela aurkeztutako hasierako aurrekontuaren kapitulu guztientzat.
- ☐ Hasierako aurrekontuaren gainean onartutako aldaketak justifikatzeko agiriak, aldaketarik egon bada, exekuzio-proiektua barne, baldin eta aldaketarik badago eskabidearekin batera bidalitako hasierako proiektuarekin alderatuta.
- ☐ Kontratazio prozedurari buruzko ziurtagiria (IX ERANSKINA).
- ☐ Diruz lagundutako aurrekontuan egindako aldaketak justifikatzeko txostena.

Inbertsioa erabilera edo zerbitzu publiko bati atxikitzeko konpromisoa HARTZEN DU
.....(e)n,(e)koaren ...(e)(a)n

Alkate udalburua

Sinadura elektronikoa



VI. ERANSKINA

KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA

Nik, jau-
nak/andreak,(e)ko Udaleko kontu-hartzaileak/idazkari kon-
tu-hartzaileak, hauxe

ADIERAZTEN DUT:

.....
..... deritzon inbertsiotarako,
(e)ko Udalak euroko gastua xedatu du, kontabilitateko
..... dokumentuaren arabera (honi erantsita doa).

Eta ez da oraingo ekitaldian gehitu eta aurreko ekitaldietan xedatu diren kredituen gainekoa.

Sinadura elektronikoa



VII. ERANSKINA

IDAZKARITZAREN ZIURTAGIRIA

Nik,jaunak/andreak,
.....(e)ko Udaleko idazkariak, hauxe

ZIURTATZEN DUT:

.... izeneko inbertsiorako,(e)ko Udalak

VII.A PUBLIZITATEA BEHAR BEZALA EGIN DU

Inbertsioa gauzatzen den bitartean, 16. oinarrian aipatutako dirulaguntzaren zenbatekoa eta eman-
dako dirulaguntzaren jatorria adierazita:
(Markatu aukera bat edo gehiago)
☐ weborriofizialaren bidez, erahonetan:
(Egiaztagiriak erantsi dira)
☐ zabalkundemasiboabermatzenduen honako bitarteko honen bidez:
(Egiaztagiriak erantsi dira)
☐ honako bitarteko honen bidez eta baldintza hauetan:
(Egiaztagiriak erantsi dira)

VII.B DIRULAGUNTZEI, LAGUNTZEI, SARREREI EDO BALIABIDEEI DAGOKIENEZ

(honako aukera hauen artean ziurtatzen den/diren aukera/k markatu)
☐ Honako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide hauek jaso ditu:

Organo emailea Órgano concedente	Emandako kopurua Importe concedido	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna Compatibilidad o incompatibilidad
1.		
2.		
3.		

☐ Inbertsio honetarako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide bat eskatu du, hona-
ko xehetasun hauekin:

Deialdia egin duen organoa Órgano convocante	Eskatutako diru kopurua Importe solicitado	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna Compatibilidad o incompatibilidad
1.		
2.		
3.		

☐ Inbertsio honetarako ez du beste dirulaguntzarik, laguntzarik, sarrerarik edo baliabiderik eska-
tu estatuko edo nazioarteko inolako erakunde publiko edo pribatutan.

**VII.C INBERTSIOA ERABILERA EDO ZERBITZU PUBLIKO BATI ATXIKITZEARI DAGOKIONEZ**

Gauzatu den udal-eskumeneko inbertsioa erabilera publiko bati atxikita edo zerbitzu publiko bati loturik dago edo, urte anitzeko gastua bada, konpromisoa hartzen du inbertsioak erabilera edo zerbitzu publiko bati eragiteko obra amaitzen denean.

Bidezko ondorioak izan ditzan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutako udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdian, ziurtagiri hau egin dut,

.....(e)n,(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura elektronikoa



VIII. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-KONTUA ETA ALDAKETAK ONARTZEKO ESKABIDEA, HALAKORIK BADA

Nik,
..... jaunak/andreak, (e)ko alkate udalburuak(IFK:
.....) hauxe

AZALTZEN DUT: ikusita erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutakoa, justifikazio-kontua bidaltzen dizut.

Dirulaguntza jaso duen adjudikatutako aurrekontua

Epearen barruan burututako eta ordaindutako gastua

Burutzapena justifikatzen duten fakturen zerrenda:

— Faktura zenbakia:

- Fakturaren data:
- Hornitzailea:
- Zenbatekoa:
- Ordainketaren data:

— Faktura zenbakia:

- Fakturaren data:
- Hornitzailea:
- Zenbatekoa:
- Ordainketaren data:

— Faktura zenbakia:

- Fakturaren data:
- Hornitzailea:
- Zenbatekoa:
- Ordainketaren data:

— Faktura zenbakia:

- Fakturaren data:
- Hornitzailea:
- Zenbatekoa:
- Ordainketaren data:

Obraren azken ziurtagiria,koren.....ekoa:
zenbatekoa:

Halaber, diruz lagundutako aurrekontuari dagokionez onartutako aldaketak justifikatzeko agiriak eransten dira, hala dagokionean. Diruz lagundutako helburua lortzeko beharrezkoak diren arrazoi berriak eta ustekabekoak honako hauek dira:
.....



Bidezko ondorioak izan ditzan Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutako udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdian, ziurtagiri hau egin dut,

.....(e)n,ekoaren ...(e)(a)n.

Sinadura elektronikoa
Alkate udalburua

OHARRA: Dirulaguntzaren jarraipena egiteko harremanetarako pertsona:

Izen-abizenak:.....

Telefonia:.....

Posta elektronikoa:



IX. ERANSKINA

IDAZKARITZAREN ZIURTAGIRIA

Nik, jaunak/andreak,
.....(e)ko Udaleko idazkariak, hauxe

ZIURTATZEN DUT:

.....
..... izeneko inbertsiorako,
..(e)ko Udalak

KONTRATAZIO PROZEDURARI DAGOKIONEZ

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak adjudikazio-prozeduraren inguruan ezarritakoa bete da (lege horren bidez ekartzen dira Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).

Bidezko ondorioak izan ditzan Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bultzatutako udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdian, ziurtagiri hau egin dut,

.....(e)n,ekoaren ...(e)(a)n.

Sinadura elektronikoa